

# ASTIGARRAGAKO UDALA

## AGURRA

Gure herriaren nortasuna berreskuratu dugun unetik, alegia, 1987.eko Apirilaren 9an, bere izaerari dagozkion ezaugarri nola ikurrak herritarrekin gauzatzen aritu gara Udal Gorporazioan.

Ahalegin horien fruitua dugu hemen aurkezten diren gure Udal ezkutu eta ikurrinaren irudi-edukina, zeinak gurekiko izana aurkezteko tresnak kontsideratu behar bait ditugu, herri barruko kale izendegi marrazkiarekin batera.

Hala bada, zabal ditzagun,

ALKATE - LEHENDAKARIA
ANTTON ARKA MONTORO

Astigarragan, 1990ko Uztailak

## ASTIGARRAGA

Udalerri hau Urumea Ibaiako ibarbazterrean kokatzen da. Luze-zabala 11,4625 Km izanik, ondoko herri hauekin muga egiten du: Iparraldean, Altza; Ekialdean, Errenteria; Hegoaldean Landarbaso eta Hernani eta Mendebaldean, Donostia.

Erliebea mendi eta lautada batez osaturik dago. Alde batetik, Txoritokieta, 317,6 m. eta Santio-Mendi, 298,3 m. altuerak daude eta beste aldetik, Urumea Ibaiako lurralde leuna. Lurralde hau erreka batzuk ere zeharkatzen dute: Zarkumendegi, Oialume, Epele, Petritegi, Muxar edo Antoña eta Putzuetako errekak. Aipaturiko bi faktore hauek biztanlegoaren kokaleku egoeran eragina handia izan dute.

Klima ozeanikoa da, epela, Kantauri Itsasoko hurbiltasunarengatik.

Azken udal erroldaren arabera Astigarragak 3292 biztanle ditu. Hauetariko %70a Astigarraga eta Ergobiako hirigunetan bizi da, beste %15 Santio-Mendi eta Txoritokietan, gainerakoa Bentak eta Zamokaren artean sakabanatzen da.

Lan-iharduera: Industria-iharduera nabarmentzen da batipat, bai 26. poligonoan, bai sakabanaturik dauden tailerretan. Industria honek ere biztanlegoa erakarri du. Honetaz gain, sagardogintza aipatu behar dugu, tradizio handikoa bait da.

Jaiak, Uztailak 25ean, Santiago eguna, eta Abuztuaren 16an, S. Roke eguna, ospatzen dira. Azken egun honetan Santio-Mendiko ermitan erromeria bat izaten da.




## SALUDO

Habiendo recobrado nuestro municipio su personalidad el 9 de Abril de 1987, se emprendió en coordinación con los vecinos la labor de definición de sus símbolos de identidad, cuales son el escudo municipal y la bandera de la villa. Muestra de ese trabajo presentamos para su conocimiento público el contenido de ambos emblemas y el atractivo callejero del casco urbano.

## ASTIGARRAGA

Municipio enclavado en la margen derecha de la vega del Río Urumea tiene una extensión aproximada de 12 Km, y limita al N. con Altza, al E. con Rentería, al S. con Landarbaso y Hernani y al O. con Donostia.

El relieve presenta colinas suaves (Txoritokieta y Santiago-Mendi) y una zona llana atravesada por el Río Urumea, al que confluyen pequeños arroyos: Zarkumendegi, Oialume, Epele, Petritegi, Muxar o Antoña y Putzueta. Estos dos factores citados han influido en el asentamiento de la población, que según el último censo de población es de 3.292 habitantes. El clima es oceánico, de carácter templado por la cercanía de la costa.

En cuanto a la actividad principal destaca el sector industrial, localizado en el polígono 26 y en pequeños talleres. Astigarraga cuenta también con una industria tradicional importante como es la fabricación de la sidra, que da origen a las sidrerías muy visitadas durante la temporada por gentes de todo el País Vasco.

Sus fiestas se celebran el 25 de Julio, festividad de Santiago, y el 16 de Agosto, día de San Roque, con la tradicional romería a la ermita de Santiago-Mendi.

1 UDALETXEA

2 KULTUR-ETXEA

3 MURGIA JAUREGIA

4 ANDRE MARIAREN ZERURATZEA PARROKIA

5 PILOTALEKUA

6 TXOMIN SAN SEBASTIAN HERRI ESKOLA

7 REGINA APOSTOLORUM IKASTETXEA

8 KONTSULTORIOA



BIDEBITARTE LANTEGI ALDEA
POLIG. 26. 1. FASE
IBILBIDEA
DONOSTIA
ERGOBIA
KIROL ZELAIA
ZEHARRA
NAGUSIA
N. ALMANDOZ PLAZA
FORU ENPARANTZA
JOAKIN MAIZ KALEA
J. ELTZO
KALEA
TOMAS
ALBA
PELOTARI
KALEA
KALEA
JOSEBA BARANDIARAN PLAZA
SAGARDO PLAZA
SANTIAGO
SANTIO ZEHARRA
SANTIO MENDI AUZOA
NAGUS
1
2
3
4
5
6
7
SANTIAGO MENDI

DONOSTIA




OIARTZUN

DISEÑO: F. DE CARLOS



GRAFICAS MAVISA

## EZKUTUA

Udala sortu zenean, 1987ko Apirilak 9, Udalerriaren ezkutua burutzeari ekin genion. Ezkutu honetan herriaren historiarekin oso erlazionaturik dauden bi osagarri nabari daitezke: Bata, "Astigar" zuhaitza, bestea, Santiagoren irudia, ermitaren zaindaria dena. Hauekin batera erromesaren maskorra edo kontxa.

Sinbolo hauek gure herriaren historia bezain zaharrak izanik, guretzat maitagarria den sinboloan batzea pentsatu genuen.

Astigarragari "astigar" hitzetik datorkio esanahia, eta "astigar" zuhaitzen tokia dela esan nahi du hain zuzen ere. Santiago irudiak, ordea, Erdi Aroko historiarekin zer ikusirik handia daukala esan behar dugu, Santiago-Bidearen lekukotasun bat omen bait da.

Oinarri bezala ezkutu zaharra hartu zen eta egokiagoa ikusi genuen Santiago erromesaren irudia Santu honen irudia, mairuak hiltzen baino. Herritarren proposamen eta iritziak izan ondoren, Udal honek ez ohizko Udal Batza Plenoan, 1989ko Martxoak 17an, ezkutu hau onartu zuen: "Urrezko kolorearen gainean, bi zuhaitz "astigar" motakoak eta hauen gainetik zilarrezko Santiagoren irudia, lurra berde kolorekoa eta lur honen erdian erromesaren maskorra".

## ESCUDO

El escudo de Astigarraga presenta dos constantes simbólicas muy relacionadas con la historia de nuestro pueblo: La especie arbórea "astigar" o "arce" muy abundante en Guipúzcoa y que da nombre al pueblo "lugar de arces", y la figura de Santiago, imagen del s. XII venerada en la ermita.

Tomando como base el antiguo escudo se realiza la propuesta del nuevo escudo en la que aparece la figura del apóstol Santiago peregrino en contraposición a Santiago "matamoros" del antiguo escudo. Tras la exposición pública se acordó en el Pleno Extraordinario de 17 de Marzo de 1989 el escudo definitivo: "En campo de oro dos arces de sinople surmontados por una imagen de Santiago en plata, terrasado de sinople, con una venera de plata sobre la tierra".





## IKURRINA

Udalerriaren ikurrina gure ezkutuan oinarritzen da, hau da: "Oihal gorri baten gainean, ezkutua kokatzen da, eta honen azpian ASTIGARRAGA izena eramaten du". Gorri kolorearen aukeraketa egin zenean, arrazoi batzuk eman ziren. Alde batetik, aintzinako ikurrinaren kolorea gorria izan zela, eta beste aldetik, kolore gorria beroagoa zela eta hobeto zetorkiola ezkutuaren berde koloreari kontutan hartu zen.

Azkenik, Gizarte-Ongizate, Kirol, Kultur eta Hezkuntz Batzordeak, 1989ko Martxoak 2an, denok ezagutzen dugun ikurriña onartzea erabaki zuen.

## BANDERA

La bandera de nuestro pueblo tiene su razón de ser en el escudo, ya que éste figura en el centro de la bandera sobre fondo rojo, al que se le ha añadido el nombre de la villa ASTIGARRAGA en color negro. La elección del rojo responde a razones histórico-culturales muy ligadas a Euskal-Herria, además del carácter cálido del rojo y el contraste con el verde del escudo que determinó su elección y aprobación en la Comisión de Bienestar Social, Deportes, Cultura y Educación celebrada el 2 de Marzo de 1989.